

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Lanbide-gaitasunak egiaztatzeko beste 110 plaza deitu dira

Lorezaintza, sukaldaritza, industri mantentze eta produktu biozidekin egindako tratamenduen arloetako plazak dira

Asteartea, 2016.eko abuztuak 30

Nafarroako Gobernuak beste 110 plaza deitu ditu [lanbide-gaitasunak egiaztatzeko](#), lan- esperientziaren bidez edo prestakuntzako bide ez formalen bidez eskuratu direnak ondorengo arloetan: [lorezaintza](#), [produktu biozidekin egindako tratamenduetan](#), [sukaldaritza](#) eta [industri mantentzean](#).



Lorezaintza, sukaldaritza, industri mantentze eta produktu biozidekin egindako tratamenduen arloetako 110 plaza dira.

Deialdi berri honetan izena emateko epea, Nafar Lansareak egindakoa Hezkuntza Departamentuarekin batera, datorren astean zabalik izango da, irailaren 5etik 9ra. Interesdunek eskaera formalizatu beharko dute Nafarroako Gobernuko [erregistroren](#) batean edo, Internet bidez, www.navarra.es webguneko [zerbitzuen katalogoan](#).

Zehazki, 40 plaza deitu dira lorategiak eta berdeguneak jartzeko eta mantentzeko kualifikaziorako; 20 sukaldaritzarako; 20 industria ekipoa mantentzeko eta muntatze mekanikorako; 20 izurriteak kontrolatzeko zerbitzuetarako eta 10 organismo kaltegarriak kontrolatzeko zerbitzuak kudeatzeko.

Prozedura horrek profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko balio du lanbide bat betetzeko beharrezkoak diren gaitasun guztiak dituztela frogatzen denean, lan-esperientziaren eta arautu gabeko prestakuntza-ikastaroen bidez eskuratutakoak. Egiaztatze hori lanpostuko ebaluazioen, elkarrizketa profesionalen bidez egiten da, eta dokumentazioa aurkeztuz.

Gainera, gaitasun-unitate horiek Lanbide Heziketako modulu zehatz batzuen bidez ere baliozkotu daitezke; hala, titulu bat lortzea erraztu ahalko da, baldin eta gainerako moduluak egiten badira eta LHn sartzeko baldintzak betetzen badira.

2010etik, 1.885 plaza

2010. urtetik, Nafarroako Gobernuak lanbide-gaitasunak

egiaztatzeko zenbait deialdi egin ditu, 1.885 plaza guztira, honako hauen kualifikazioetan: mendekotasunarekiko arreta, osasun-larrialdiak, haur-hezkuntza, soldadura eta galdaragintza, ostalaritza eta eraikuntza eta obra zibila.

Prozedura horien plangintzan eta erabakiak hartzeko orduan Egiatzen Batzordeak esku hartzen du, eta honako erakunde hauekiko ordezkariak daude bertan: Nafar Lansarea, Hezkuntza Departamentua, Nafarroako Enpresarien Konfederazioa eta CCOO, LAB eta UGT sindikatuak.